



GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINZTA OROKORRA

Abantailak

- Kotizazioa errazten eta sinplifikatzen du.
- Enpresetan segurtasun gehiago dago, kalkulua TGSSk egiten baitu.
- Likidazioan erroreak egotea minimizatzen da.
- Likidazioari buruzko xehetasun gehiago ematen dituzte zerbitzu berriek.
- Arreta guztiz elektronikoa da.

Garrantzitsua da

Likidazioa hilerok eskatzea eta TGSSk kalkulua egiteko beharrezko informazioa ematea.

Enpresak langileei buruz duen informazioa eta Diruzaintza Orokorrean dauden datuak bat datozela egiaztatzea.

Langileen datu aldaketak epearen barruan jakinaraztea.

Komunikazio kanalak

Internet

Web: www.seg-social.es



Telefonia

901 50 20 50

Sare sozialak

Twitter  : @Info_TGSS



NIPO: 275-15-012-9 • Depósito Legal: M-2785-2015



GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINZTA OROKORRA



MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



Sistema de Liquidación Directa



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL


SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



Zer da Likidazio Zuzenaren Sistema?

Kotizazio eredu berria da eta sistema honen bidez enpresek beren langileen Gizarte Segurantzako kuotak ordainduko dituzte.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak likidazioa kalkulatu eta ordainagiria luzatzen du, modu elektronikoa dirua sartu ahal izateko.



Nola kudeatzen da?

Likidazio Zuzenaren Sistema oraingo **Datuen Bidalketa Elektronikoa**ren Sistemarekin kudeatzen da. Azken sistema hori ongi finkatuta dago enpresek eta profesionalak Gizarte Segurantzarekin duten harremanean.



Zein informazio erabiltzen du TGSSk?

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak likidazioa kalkulatzeko zure informazioa eta beste Administrazio batzuek emandakoa (GSIN, SEPE, IGI, mutuak) erabiltzen du.

Enpresak informazio minimoa eman behar du, aurreko hiletik aldatu diren langileen datuak soilik. Informazio horren barruan sartzen dira enpresak jakinarazi behar dituen kotizazio oinarri eguneratuak ere, horiek aldatzen diren bakoitzean.

Nola lortzen da likidazioaren ordainagiria?

Enpresak, hiler, Gizarte Segurantzaren likidazio kuotak eskatu beharko ditu eta langileen informazioa jakinarazi, beharrezkoa den kasuetan soilik.

TGSSk trukean likidazioaren kalkuluaren zirriborro bat bidaliko du. Likidazioa kalkulatzea saihesten duen akatsen bat antzematen badu, enpresari jakinaraziko dio akatsa zuzendu dezan.

Amaitzeko, enpresak zirriborroa onartuko du eta ordaindu beharreko zenbatekoaren ordainagiria lortuko du. Zenbateko hori dirua kontuan sartuz edo ordainketa elektronikoa bidez ordaindu beharko da.



Enpresak uneoro kontsultatu ahal izango ditu Diruzaintzak dituen datuak, egindako kalkuluaren xehetasunak eta likidazioaren azken zenbatekoa.

Nola egiten dute bat enpresek Likidazio Zuzenaren Sistemarekin?

2015eko urtariletik aurrera, enpresek derrigorrez egin behar dute bat Likidazio Zuzenaren Sistemarekin. Bat-egite hori modu progresiboan egingo da.

Enpresei Gizarte Segurantzako Egoitza Elektronikotik jakinaraziko zaie.

Jakinarazpena jaso eta hirugarren hilabetetik aurrera aplikatuko da sistema berria. Hiru hilabete horietan zehar, praktikak egin ahal izango dira, baina likidazioa RED Internet bidez transmititzen jarraituko da, uneko kuoten autolikidazio sisteman.

